

Bergarako Udalaren kirol arloko PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2021

2017ko abendua

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. Sarrera | 2 |
| 2. Helburua, metodologia eta dokumentuaren egitura | 3 |
| 3. Aurreko planaren ebaluazioa..... | 7 |
| 4. Begarako kirol esparruko azterketa | 10 |
| 4.1 Eskola Kirola | 10 |
| 4.2 Kirol federatua | 24 |
| 4.3 Partaidetzako Kirola | 31 |
| 4.4 Kirol ekipamenduak | 37 |
| 4.5 Kudeaketa / Udal Kirol Zerbitzua | 43 |
| 5. Kirol arloko helburu eta estrategia nagusiak 2018-2021 | 49 |

1. Sarrera

Begaran kirolak tradizio handia izan du, dela Udalak urtez-urte herritarren esku jarri dituen baliabideen kalitateagatik; dela herriko kirol elkarteek aspalditik egin duten lanagatik, edota herriko bertako ingurune natural eta urbanoek jarduera fisikoa egiteko eskaintzen dituzten aukerengatik.

Badakigu jakin herri batean osasuna eta bizitza kalitatea sustatzeko, besteak beste, biztanleen artean jarduera fisikoa eta kirola egiteko baldintzak hobetzea beharrezkoa dela. Eta horixe izan zen, hain zuzen, 2013-2016 epealdirako Begarako Udaleko Kirol Sailak herriko kirol esparrurako Plan Estrategikoa diseinatzeko arrazoia. Plan honetan, herriko kirol arloa bost azpi arloetan banatu zen: egituratu gabeko jarduera fisikoa eta kirola; kirol eskaintza egituratua; Begarako kirol elkartegintza; kirol ekipamenduak; eta kudeaketa. Aipatu arlo horietako bakoitzean hainbat helburu eta ekintza ezarri ziren.

2017 urtean, kirol arloko plan estrategikoaren iraunaldia amaituta, Begarako Udalak herriko kirol esparrurako erronka berriak ezarri nahi ditu. Alabaina, egitasmo berriak abian jarri baino lehen ezinbestekoa da aurreko plan estrategikoaren ebaluazioa egitea, eta emaitzen arabera, lanerako ekintza ildoak zehaztea. Eta hau guztia, noski, herriko kirol esparruko agente ezberdinen iritzia eta ikuspegia kontuan hartuta egin behar zela argi zuen Udalak.

Beraz, honako dokumentuak Begarako kirol arloko 2013-2016 plan estrategikoaren ebaluazioa jasotzen du eta 2018-2021 epealdirako plan estrategiko berria biltzen du. Tresna honen bitartez Begarako Udalak kirol esparruan hobekuntzak eragin nahi ditu. Azken batean, kirol arloko plan estrategikoa gauzatzeak kirol esparruko agenteen elkarlana eta konpromezua indartzea eragingo du; eskaintza biztanleriaren beharretara egokitzea ahalbidetuko du; eta herritar guztiak jarduera fisikoa eta kirola ahalik eta baldintza onenetan egin ahal izateko bitartekoak antzematea ekarriko du.



2. Helburua, metodologia eta dokumentuaren egitura

Helburua

Lan honen helburu nagusia Bergarako kirol esparruko ekintza plana diseinatzea da.

Horretarako, kirol arloa bost azpi arloetan banatu dugu: Eskola kirola; Kirol federatua; Partaidetza kirola; Kirol ekipamenduak; eta Bergarako Udaleko Kirol Saila.

Helburu orokorraz gain, ondorengo helburu osagarriak ezarri dira:

- » Bergarako kirol arloko azpi arlo ezberdinen egungo egoera aztertzea.
- » Udal kirol politikaren diseinuak genero ikuspegia izan dezan bermatzea.
- » Hurrengo urteetan kirol arloan abian jarri behar diren ekintzak zehaztea eta Udalari lehentasunak ezartzen laguntzea.
- » Prozesuan zehar herriko agente ezberdinen partaidetza sustatzea eta ekintza planean haien ikuspegia kontuan hartzea.

Metodologia

Lana burutzeko metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa aplikatu dira. Batetik, kirol arloko partaidetza datuak jaso eta aztertu dira; eta bestetik, kirol arloko agenteekin partaidetza saio berezi bat eta elkarrizketak burutu dira informazio kuantitatiboa osatzeko, eta haien iritziak eta proposamenak jasotzeko.

Planaren diseinuan parte hartu duten eragileak, beraiekin izandako bileretan egindako ekarpenak planean jaso dira:

Elkarrizketak / bilerak:

- Bergarako Alkatea.
- Bergarako kirol zinegotzia.
- Bergarako kirol zerbitzu burua.



- Begarako udal eskola kirol arduraduna.
- Begarako eskola kirola koordinatzailea.
- Begarako berdintasun teknikaria.
- Begarako berdintasun plana idazten ari den lan taldea.
- Begarako euskera zerbitzuko arduradunak.
- Begarako Kirol Elkarteak: Futbol saileko arduradunak.

Partaidetza saioa:

- San Martin ikastetxeko kirol koordinatzailea.
- Aranzadi ikastolako kirol koordinatzailea.
- Lokatza txirrindularitza elkarteak.
- BKE futbola.
- BKE saskibaloia.
- Beti Busti piraguismo elkarteak.
- Pol Pol mendi elkarteak.
- Hanka Labanka irristaketa elkarteak.
- Skate taldeko kideak.
- Hanka luze lasterketa taldeko kideak.
- Ariznoa gimnasia erritmikoa elkarteko arduraduna.
- Igeriketa elkarteko kidea.
- Palmerakuak mendi bizikleta.

Guztiei eskerrak lana burutzeko lana burutzeko egin dituzten ekarpenengatik.



Dokumentuaren egitura

- » Bergarako Udal Kirol Zerbitzuko Plan Estrategikoa 2013-2016 dokumentuaren ebaluazioa burutu da, bertan planteatzen ziren lan ildoen beteze maila eta Bergarako Kirol arloari egindako ekarpenak aztertzeko. Azterketa hau plan berria garatzeko abiapuntu ezin hobea da.
- » Dokumentuaren mamia aipatu bost azpi arloen azterketak osatzen du. Azpi arlo guztiek ondoko egitura jarraitzen dute: lehenik datuak edo egungo egoerari buruzko informazioa azaltzen da. Diagnostikoa eta gero, arlo bakoitzean ondorio nagusiak eta etorkizuneko erronkak zeazten dira.
- » Azken atalean azpi arlo bakoitzean egindako proposamenak jasotzen dira, horiekin guztiekin ekintza plana osatuz.

3. Aurreko planaren ebaluazioa

| | HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK | | LORPENAK | EGITEKOAK | |
|---|---------------------------|--|----------|---|---|
| 1. EGITURATU GABEKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA | 1.1 | Herritarren jarduera fisikoa errazten eta sustatzen duten ekimenak bultzatu biztanleria aktiboa izan dadin. | | | |
| | 1.1.1 | Udal mailako ballabideak eta egitasmoak jarduera fisikoa sustatzeko egun dauden programen aplikazioa. "Aktibili" <i>Jarduera Fisikoaren Euskal Plana</i> Bergaran ezarri eta garatzea. | ● | Tokiko Osasun Sarea martxan jarri da; Debagoieneko HEZIrekin hitzarmena sinatu da programa bereziak lantzeko: obesitatea, nutrizioa eta jarduera fisikoa. | Udal kirol eskeintza batpat kiroldegian konzentratzen da; beste ingurune batean antolatutako aktibitateak bultzatu. |
| | 1.1.2 | Udaleko beste alorrekin ekintza bateratua eta koordinatua bultzatzea. Udal mailako Koordinazio Mahia. | ● | | |
| | 1.1.2.1 | Hirigintza: hirigintza planean kirol ikuspegia barneratu, sare ez motorizatua diseinatzeko eta gauzatzeko, eta Bergarako espazio eta ibilbide naturalak seinalizatzea eta ezagutzera emateko (parkeak, gerriko berdea, etab.). | ● | | Seinalizazioa eta ibilbideen inguran akzio puntualak egin dira baina berriro berreskuratu nahi da ekimen hau: active urban idotik. |
| | 1.1.2.2 | Kultura / Hezkuntza: Bergarako gazteriaren aktibitate maila sustatzeko estrategia bateratuak definitzeko. Batez ere 12-18 urte tarteari eta nesken partaidetzari erreparatu. | ● | Uda eta Gabonak kanpaina gazteei bideratua batpat; programak 12-16 adin tarteko gazteek kiroldegiko aktibitateetara erakartzeko, kirol federatua uzten dutenei ere aukera berriak eskeini; bizikleta jardunaldia Hezkuntzarekin batera. | |
| | 1.1.2.3 | Ongizatea: Udalaren kirol eskaintza egituratua behar bereziak dituzten biztanleak identifikatzeko eta eskaintza hauengana iritsi dadin, eta bazterketa arriskuan dauden biztanleentzat eskuragarria izan dadin irizpide ekonomikoak ezartzeko. | ● | Tarifa bereziak garatu dira kirol eskaintza eskuragarri bihurtzeko zailtasun ekonomikoak dituzten familientzat. | Bergarako Oinarrizko Kirol Aktibitateak definitu beharko lirateke hauek herritar guzientzat eskuragarri egon daitezen bermatzeko. |
| | 1.1.2.4 | Euskerak: kirol elkarleak 0-18 urte bitarteko saioak euskeraz egin ahal izateko bitartekoak ezartzeko. | ● | Oinarrizko dirulaguntzetan barneratu da erizpidea; kiroldegiko aktibitate eskeintzan semaforo sistema ere barneratua. | |
| | 2.1 | Kirol eskaintza anitza egitea, kalitatezkoa, herritarren beharrei erantzuten diona eta kirol ibilbidearen jarraipena bermatzen duena. Kirol eskaintza sistema iraunkorra. | | | |
| 2. KIROL ESKANTZA EGITURATUA | 2.1.1 | Eskola Kirola: eskola kirolaren antolamendua arautzeko udal eragileen arteko hitzarmena bultzatu, besteak beste, adin-tarteak definitzeko, hasiapena eta lehiaketako uneak bereizteko eta kirol modalitate bakoitzaren ekintza esparrua definitzeko. | ● | Bergara Kirol Elkarleak sortutako enpresak kudeatzen du eskola kirol programa, profesionalizazio bidean. Proiektu pedagogikoa egin da. Programaren diseinua eta erizpideak Eskola Kirola Kontseiluak onartzen ditu. Eskeintzak aldatetako izan ditu, konpetizioa aukeran dagoen osagaia bihurtuz. | Jardun euskerak elkarleak eta ikasleek bereaien eskeintza egiten dute UDA kanpainaren kalte. Eragile desberdinen arteko koordinazioa bultzatu. |
| | 2.1.2.1 | Kirol Federatua: Eskola kirolaren bultzatuz eskaintzaren jarraipena bermatzeko, batez ere kirol-uztea eskaintza ezaren menpe dagoen kasuetan. | ● | Klubak eskola kirolaren antolamenduan parte hartzen dute. Hainbat modalitate ezberdin jorratzeko aukera. | Araozak futbol taldearen kudeatzaileekin. 3. talde bat sortu dute infantil mailan eta beste kirolak kalitatez izan dira eta saskibaloia taldea mantentzeko arazoak. |
| | 2.1.2.2 | Kirol Federatua: Ibilbide ezberdinetako (errendimendua eta partaidetza) kirol eskaintza bermatu eta kupoak ezarri, neska zein mutil, edozein adin eta ezaugarri fisikoak izanda ere, kirol praktikarako aukerak denon behar eta nahietara egokitu eta onartu. | ● | Aukera zabala dago herrian kirol federatua egiteko. Eskeintza berria sortu da: hockey-a, mendi lasterketa. | |
| | 2.1.3.1 | Udal Kirol eskaintza: Hirurogei urteko gorako biztanleriaren beharrik identifikatu eskaintza egokitzeko, zebitzuak hobetzeko eta adin horietan kirol jarduera sustatzeko. | ● | | Bai kirol errejeta zein beste tresna eraginkor garatu adin tarte honetan aktibitate maila handitzeko. |
| | 2.1.3.2 | Udal Kirol eskaintza: Ongizate sailarekin batera estrategiak landu ezinduen beharrei erantzuteko eta etorkin zein bazterketa arriskuan daudenei ere erantzun ahal izateko. | ● | | |
| | 2.1.3.3 | Udal Kirol eskaintza: Zerbitzu berriak sortu: osasun zentroekin ekimen koordinatuak abian jarri, bai errehabilitaziorako, bai mediku-preskripzio programak ezartzeko. | ● | Kirol enbaxadore programa abian jarri da. Bestalde, anbulategitik ere kirol zerbitzura bideratzen dira. Kirol errejeta. | Anbulategitik ez dira nahi bezain beste bideratzen. Eraginkortasuna handitu behar zaio programari. |

| | | | | | |
|----------------------------------|---------|--|---|---|---|
| 3. BERGARAKO KIROL ELKARTEGINTZA | 3.1 | Ibilbide zein kirol eskaintza anitza eta iraunkorra bermatzeko Bergarako kirol elkartegintza sendotzea. | | | Klubetatik at dauden kirol ekimenak ere kontuan hartu. Antolaketa era ezberdinak: Adib. pilota eta frontenis txapelketa. |
| | 3.1.1 | Eskura dauden baliabideak optimizatu kirol elkarten protagonismoa areagotzeko eta eragile guztien koordinazioa sustatzeko Bergarako kirol eskaintza egituratu. | ● | | Egitura bateratua ez da lortu. Udalaren aburuz klub eta sekzio ezberdinei lan administratiboak burutzeko laguntza eskeintzea aukera bat izan daiteke profesionalizazio bide horretan. Hainbat zerbitzu ere bateratu daitezke (erosketak, kontratazioak, etab.). |
| | 3.1.1.1 | Kirol egitura federatu bateratua bultzatu. | ● | Futbol sekzioak arazoak gainontzeko sekzio eta taldeekin. | |
| | 3.1.1.2 | Kudeaketa profesionala barneratu egitura federatuan, boluntarioza sistemarekin uztartuz. | ● | Igeriketa, patinaia...badira profesionalizazioa bilatzen duten taldeak. | Pauso batzuk eman diren arren oraindik bidea egiteko dago. |
| | 3.1.1.3 | Klub finantzaketa eredua aldatu urteko jardura edo ekintza konkretuak baino epe luzeko proiektuak lehenetsiz. | ● | Dirulagunza oinarriak: klubaren egiturak %45eko pisua. | Ekitaldiak (%30) beste erizpide batekin lagundu. |
| | 3.1.2 | Eskualde mailan, aktibitate federatuaren berrantolaketa bultzatu, sexu bien eta adin eta ezaugarri ezberdinetako biztanleentzat haien behar, nahi eta gaitasunetara egokitu kirol eskaintza ahalik eta zabalena egiteko. | ● | Eskualde mailan ekimen batzuk indarra hartu dute: Emakumeen Bira. Aldiz, Debagoiena Kirol Txartela proiektua bertan behera geratu da. | |
| 4. KIROL EKIPAMENDUAK | 4.1 | Kalitatezko kirol eskaintza antolatu ahal izateko Bergarako kirol ekipamenduaren sarea egokitu. | | | |
| | 4.1.1 | Kirol ekipamendu plana egin hirigintzarekin batera. Herri <i>kardio-osasuntsua</i> diseinatu. | ● | Mugikortasun taldea martxan jarri zen: herri kardio-osasuntsua. | Hirigintatik Urban Active proiekturantz bideratu da. |
| | 4.1.2 | Bukatzeke dauden proiektuak amaitu. | ● | | |
| | 4.1.2.1 | Agorrosin kirolgunea: kanpoko igerilekua estali eta gimnasioa atondu. | ● | Gimnasioan gela berri bat egin da, pisu libreekin aritzeko. | Kanpo igerilekua estaltzea ez da lehentasuna izan. |
| | 4.1.2.2 | Bidegorri sarea: Labegarietarainoko bidea seinaleztatu, argiztatu eta atondu. | ● | Bi tramo berri, seinaleztapena eta argiztapena hobetu dira. Bizikleta aparkalekuak jarri dira leku estrategikoetan. | |
| | 4.1.2.3 | IKUS 1.1.2.1. Sare ez motorizatua eta espazio eta ibilbide naturalak. | ● | Ibilbide natural batzuk markatu dira. | Garatu gabe dago. Hirigintzarekin batera proiektua martxan. |
| | 4.1.3 | Kirol ekipamendu zaharkituetan esku-hartzea. | | Labegarieta kirol gunea txukundu da. | |
| | 4.1.3.1 | Frontoiak: beharrak identifikatu eta mantentze-lanak bermatu. | ● | Urtero herriko frontoien mantenurako aurrekontua dago. 12 daude. | |
| | 4.1.3.2 | Ikastetxeetako kirol instalakuntzak: beharrei buruzko gogoeta (estaldurak eta erabilerak). | ● | San Martin eta Aranzadi ikastetxeetan lanak burutu dira. | |
| | 4.1.4 | Proiektu berriak abian jarri. Koordinazioa beste arloekin. | | Padel pista Agorrosinen eta futbol zelaiaren harmaila. | |
| | 4.1.4.1 | Labegarieta ur bizi gunea egokitu/ekipatu. | ● | Egin da. Inguruko ekipamenduen plana idazten ari dira. | |
| | 4.1.4.2 | Angiozarreko ibilgailuen zirkuitoan esku-hartzea: guna naturala berreskuratu eta erabilera zehaztu. | ● | Zirkuitoaren erabileraren kontrolatu eta arautu da. | Eskuhartzea ez da amaitu. |

| | | | | | |
|--------------|---|---|---|--|--|
| 5. KUDEAKETA | 5.1 | Bergarako herritarren bizitza kalitatea hobetzea ahalbidetuko duen kirol ekipamenduen, kirol jarduera eta jarduera fisikoen eskaintza bermatzeko kudeaketa arduratsua eta zentzuduna egitea. | | | |
| | 5.1.1 | Kirol Zerbitzuan kudeaketa eredu berria barneratu: prozesuetan oinarritutako kudeaketa. | ● | 3K programa burutu da. | |
| | 5.1.2 | Zeharlerrotasuna bermatzea Bergarako Kirol Zerbitzuko kudeaketan. | | | |
| | 5.1.2.1 | Genero ikuspegia txertatzea: kudeaketa ekintza guztietan hizkuntza, irudi eta ikus-entzunezko material guztien erabilera ez sexista bermatzea; kirol praktika ez egituratu eta egituratuan (eskaintzan, giza baliabide eta baliabide ekonomiko eta materialen banaketan) emakumeen kirol jarduera baldintzatzen eta oztopatzen duten eskaintza-arazoei aurre egitea kirol partaidetza aregotzeko eta emakume eta gizonen aukera berdintasuna bermatzeko; estamentu guztietan (begirale, entrenatzaile, epaile, kudeatzaile, batzordekide etab.) eta Kirol Kontseiluan emakumeen presentzia bultzatzea; eta kirol ekipamenduen egokitzapenean emakumeen beharrak kontuan hartzea. | ● | Udal Berdintasun Planaren barruan dago. Oraindik ez da amaitu. Sexu jazarpenaren aurkako protokoloa egin da Agorrosinen. | Ikusteke kirol arloa behar den berezitasunarekin jorratzen den. Horren arabera eskuhartze berezia planteatu. |
| | 5.1.2.2 | Agenda 21: ingurumena eta herritarren partaidetza sustatzea: Kirol Kontseilua indartzea. | ● | Partaidetza sustatzeko beste tresna batzuk erabiltzen ari dira. Kirol Kontseilua baztertu egin da. Ikastetxeekin mugikortasuna landu da. | |
| | 5.1.2.3 | Euskararen erabilera lehenestea kirol arloan egiten diren ekintza guztietan. | ● | Eskola kirola eta kiroldegiko aktibitateetan euskara indartu da (semaforo sistema erabiltzen da kiroldegiko aktibitateetan). | |
| | 5.1.2.4 | Integrazioa: Kirola bazterketa arriskuan dauden pertsonen integrazio tresna bihurtzea Bergaran. | ● | Tarifa sozialak indarrean. Gizarte Zerbitzuarekin elkarlana. | Politika aktiboa sortu benetazko integrazio tresna eraginkorra bihurtzeko. |
| | 5.1.3 | Eskualde mailako koordinazioa elkarlanean egiten ari garen proiektuak sendotzeko eta berriak garatzeko. | ● | Debagoieneko Kirol Batzordea martxan dago. Emakumeen Bira hitzarmena eta formazio saio ezberdinak antolatuta dira. | |
| | 5.1.3.1 | Kirola Euskaraz. | ● | Bertan behera. | |
| | 5.1.3.2 | Debagoienako Kirol Txartela. | ● | Bertan behera. | |
| 5.1.4 | Udal koordinazio mahaia bultzatu beste arloekin estrategia bateratuak diseinatzeko. | ● | Osasun sailarekin elkarlana: Pensoi programa garatu da, haur loditasuna prebentzio programa. Zaharrentzat erorketa tailerra. Mugibiltzaile plataformaren sustapena egin da. | Programa ezberdinen emaitzak aztertu zuzenketak egin ahal izateko. | |

4. Bergarako kirol esparruko azterketa

4.1 Eskola Kirola

Egitura

2014/15 ikasturtean aldaketa nabaria eman da eskola kirola kudeatzeko moduan: **BERGARA KIROL ELKARTEA-ren babesean sortutako enpresa espezializatu batek** hartzen du beregain herriko Eskola Kirola kudeatzeko ardura, beti ere Udala eta ikastetxe ezberdinekin koordinatuz.

3. mailatik 6. mailara - benjaminak eta alebinak

Abiapuntua:

- *Ikasleen garapen integrala bultzatuko da, gizabanakoaren beharrak betetz eta erabateko integrazioa bideratuz.*
- *Eskaintza gizabanakoaren beharretara egokituko da.*
- *Gizarteratze, osasun eta kirol ohiturak sustatu.*
- *Kirol hezkuntza zabalaren bitartez, egun, Gorputz Hezkuntzak duen ordutegi murrizta sendotu.*

Ekimen berri hau **Proiektu Pedagogiko** bati lotuta dago, non *Eskola Kirolak hezitzailea izan behar duen, balioak jorratu eta haurrak protagonista bilakatu, norbanakoaren beharrak betetzeko jarduera izanik.*

Eskaintza formatoa

Eskaintzaren barruan leihaketa saioen protagonismoa murrizteko helburuarekin, eta **batipat nesken partaidetza sustazeko asmoarekin**, larunbateko lehiaketa saioen formatoan aldaketak egin ziren. Alegia, **lehiaketan partehartu nahi ez duten haurrentzako topaketa saio bereziak eskeintzen dira**. Topaketa hauetan ez da lehiatzen, eta kirol modalitate ezberdinak probatzeko aukera eskeintzen zaie haurrei. Hala nola: hockey-a, kirol egokituak, pelota, atletismoa, zunba saioak, etab.



Ohiko lehiaketan parte hartu nahi duten haurrek aukera hori ere eskura dute, noski.

SAIOEN ANTOLAKETA ETA LARUNBATETAKO ESKAINTZA

Egunak eta ordutegiak joan zen urtekoen berdinak izango dira.

Aukeratzeko izango dituzten kirolak eskubaloia, saskibaloia, futbola eta pilota izango dira eta astean saio bat izango dute. Horrez gain, beste bi saio izango dituzte astean, baina bakarrik batera joateko aukera ere emango zaie.

Ikusita, larunbateko partaidetza oso garrantzitsua dela motibazio, portaera eta pedagogiaren aldetik, gure proposamenean bi aukera hauek egongo dira:

A) AUKERATUTAKO KIROLA + MULTI + MOTRIZITATEA + 2 LARUNBAT HILEAN

B) MULTI + MOTRIZITATEA + 2 LARUNBAT HILEAN

Ikasturteko 12 larunbatetan txapelketak antolatuko dira (saskibaloikoak, eskubaloikoak eta futbolekoak).

Hilean bi larunbatetan ohiko txapelketak antolatuko dira eta beste bi larunbatak, berriz, lehiatu nahi ez dutenei zuzenduko zaizkie, nahiz eta partaidetza zabaldu eta haur guztiei parte hartzeko aukera emango zaien; larunbat horietan, beste joko eta kirol batzuk egiteko aukera egongo da, esaterako, hockeya, txirrindularitza... Talde honetan sartuko da esku pilota eta hiru saio, bereziki, kirol horretara zuzenduko dira.

Bestalde, aurrebenjamin eta benjamin mailan, **eskaintza mistoa** da. Alegia, neskek eta mutilek elkarrekin burutzen dituzte saio guztiak.

Alebin mailan, neskek beraien artean lehiatzeko aukera dute baina astean zehar egiten diren entrenamendu saioak mutilekin batera egiten dituzte –dirudienez, instalazio eta begirale kopuruak baldintzatzen du neurri hau-.



Koordinatzaile, arduradun eta entrenatzaileak: profila

Koordinatzaile orokorra **Edu Orgaz da, IVEFen** (Soin Hezkuntza) **lizentziatua**. Bere eginkizun nagusienak honako hauek dira:

- Programazioak egin.
- Kirol saioak prestatu.
- Metodologia finkatu.

- Prozesuaren ebaluazioa egin.
- Entrenatzaileei formazioa eman.
- Ikastetxetako arduradun eta entrenatzaileekin bilerak egin.

Ikastetxe bakoitzean, **entrenatzaile-arduradun** bat dago; **gutxienez Tafyd** ikasketak burutuak eta bere betebeharrak honako hauek dira:

- Kirol saioak eman.
- Materialaz arduratu.
- Asteburuetan antolatzen diren kirol ekintzez arduratu.
- Ikastetxeko eskola kiroleko arduradunarekin eta koordinatzaile orokorrarekin bilerak egin.

Egun, hauetako bi L.H irakasleak dira eta hirugarrena IVEF (-en) lizentziatua da. Beren ohiko zereginak: Informazioa banatu, izen-emateak jaso, taldeak egin, zerrendak sortu begiraleei emateko, Aldundiko aplikazioan izen-emateak egin, koordinazio bileretan parte hartu, gurasoekin bilerak egin.

Kirol elkarteko entrenatzaileek, gutxienez dagokien kiroleko monitore titulua dute.

- Saioak eman programazioa jarraituz.
- Behar denean larunbatetan laguntza eskaini.
- Ikastetxeko entrenatzaile-arduradunarekin batera lan egingo dute.

Egun, **6 begirale daude kontratupean: 5 mutil eta neska bakarra**. 11€/orduko ordainsaria jasotzen dute egindako lanagatik.

Asteazkenean, bi begirale artean hiru ikastetxeetan talde guztien saioak ematen dituzte. Begirale bakoitzak egunean bi ordu ematen ditu, astelehenean ostegunera. Batek 1. eta 2. mailako taldeak hartzen ditu (aurrebenjaminak) eta besteak 3. eta 4. mailako taldeak (benjaminak) eta 5. eta 6. mailako taldeak hartzen ditu (alebinak).



Larunbatetan txandaka ibiltzen dira haien artean. Bi edo hiru begirale antolatuta dauden saioen arabera.

Kudeaketa eta funtzionamendua

BKE –enpresak- hitzarmena sinatzen du ikastetxeekin. Era berean, ikastetxeek Udalaren sinatzen dute hitzarmena. Enpresak, eskola kiroleko programarekin lotura zuzena duten eginkizunak burutzen ditu, hala nola, saio guztien programazioak, begiraleak topatu eta formatu, koordinazio bilerak begirale zein ikastetxeekin, asistentzia kontrola, larunbateko ekintzen ardura, etab.

Koordinazioa eragile ezberdinen artean:

- **Eskola kirola kontseilua:** urtean zehar, beharra dagoenean biltzen da. Normalean urtean behin edo birritan. Bertan eragile ezberdinek dute hitza, hala nola, ikastetxeetako zuzendari eta irakasleek, kirol elkarte barruan dauden saila ezberdineko ordezkariak, eskola kirol koordinatzailea, Udal Kirol Zerbitzuko zuzendaria eta eskola kiroleko arduraduna.
- BKEko koordinatzailea, udal eskola kiroleko arduraduna eta ikastetxeetako kirol arduradunak formalki urtean 7-8 alditan biltzen dira.
- Egunerokotasunean, Udaleko arduradunaren eta BKEko koordinatzailearean artean komunikazioa jarraia da.
- Ikastetxe eta enpresaren artean harremana ohikoa da, irakasle arduradunen bitartez. Ikastetxeek antolakuntza orokorrean ez dute parte hartzen baina beraien iritziak bideratu ditzazkete eta kontutan hartzen dira. Azken finean, zerbitzuaren kontratatzaileak dira eta enpresa haien hornitzailea.



Finantzaketa eredua

Hitzarmenarean arabera, eskola kirolaren **finantzaketa familiek eta Udalak** jasaten dute.

Ondorengo eran:


3. mailatik 6. maila bitarte (**benjaminak eta alebinak**) ikasturteko **kuota 106 eurokoa da ikasle bakoitzeko.**

2. mailako ikasleek (**aurrebenjaminak**) **75 euroko kuota** ordaintzen dute, besteak beste, larunbatetan ez dutelako kirol ekintzarik; soilik astean zehar bi saio egiten dituzte.

Udalak 27 euro ordaintzen ditu inskribatutako haur bakoitzeko.

BKE-k, hitzarmenaren arabera, haurren kuotak eta Udalaren dirulaguntza jasotzen ditu. Diru horrekin koordinatzailea eta begiraleen soldatak ordaintzen ditu.

Bestalde, Kirol eskolek prezio ezberdinak dituzte modalitatearen arabera. Hauek ez dira kudeaketa honen barruan sartzen.



Beraz, Udalak kostearen %20 bere gain hartzen du (instalazioen erabilera kontuan hartu gabe) eta familiek %80.



Arazo ekonomikoak izan ditzaketen familiak ongizate zerbitzura jo behar dute dirulaguntza jaso eta eskola kirolean apuntatzeko. Kirol sailak ez dauka aparteko tresnarik zuzenean halako kasuei erantzuteko. **Etorkinen kasuan**, bertakoek agertzen duten baino partaidetza maila txikiagoa somatzen da eskola kirolean, bai ohitura edo arrazoi kulturelek zein arrazoi ekonomikoek azaldu dezakete alde hori.



Erabiltzen diren instalazioak

Ikastetxeetako instalakuntzak erabiltzen dira. Normalean gorputz heziketa klaseetan erabiltzen dituzten berberak. Adinaren arabera bereizten dira gunek, 1. eta 2. mailakoak gune berean eta 3. mailatik 6.ra beste batean.

Aranzadi ikastolaren kasuan, ikastolako gimnasioa nahikoa ez denez, eskolan dagoen karpa eta Zabalotegi pilotalekua erabiltzen dute benjamin eta alebin mailakoek.

Ordutegiak normalean adinaren arabera banatzen dira, lehenengo orduak txikientzat izaten direlarik.

Astean zehar, **entrenamendu saioak burutzeko instalazio gabezia** nabaria da Eskola Kirola arduradunen esanetan. Instalazio faltak talde ezberdinen programazioa zeharo baldintzatzen du, adibidez, eskaintza maila guztietan mistoa¹ da, besteak beste, ezinezkoa delako talde gehiagori espazioa ematea egungo instalazioekin.



Larunbat goizetan, Labegaraieta kiroldegia erreserbatuta dago Eskola Kirolerako, eta baita beharrezkoa denean, Ipintza futbol zelaia eta Fariskozuriko udal pilotalekua.

Beste jarduera batzuk

Kirol aniztasuneko eskeintzaz gain, Bergaran badira beste aukera batzuk adin hauetako haurrei bideratuak. Sustatzaileak klubak, erakunde pribatu eta udala bera direlarik:

¹ Alebin mailan neskak eta mutilak bereiztu egiten dira lehiaketa garaian, ez entrenamendu saioetan.



- **Kirol Eskolak:** klub ezberdinek kirol eskola antolatzen dute adin hauetako haurrei kirol modalitate ezberdinak eskaini ahal izateko. Erakartzeko bide nagusia bihurtu dira klubentzako eta bestalde finantzaketa iturri esanguratsua ere. Bakoitzak bere prezioa ezartzen du.
- **Uda kanpaina:** Bi iraupen ezberdinetako ikastaroak eskaintzen dira. Alde batetik txanda bakarrekoak, hau da, 4 asteko iraupena dutenak. Eta bestetik, bi txandatako ikastaroak (2 asteko iraupena duten ikastaroak).

Txanda bakarreko eskaintza: 10-18 urte bitarteko haur eta gazteei bideratua. Kirol ezberdinak jorratzen dituzte:

| HAUR ETA GAZTEAK (txanda bakarra) | | | | | |
|-----------------------------------|-------|--------------------------------------|--------------------------------------|---|--------------------------------------|
| MAILA | ADINA | ESKALADA | TENISA | IRRISTAKETA | DEFENTSA PERTSONALA |
| LH5 | 10-11 | 10:30-11:30 asteartea osteguna | 12:00-13:00 asteartea osteguna | 12:00-13:00 astelehena asteazkena ostirala | 11:00-12:30 asteartea osteguna |
| LH6 | 11-12 | | | | |
| DBH1 | 12-13 | | | | |
| DBH2 | 13-14 | | | | |
| DBH3 | 14-15 | | | | |
| DBH4 | 15-16 | | | | |
| DBHO | 16-18 | LEKUA | | | |
| LABEGARAIETAN | | | | | |



| HAUR ETA GAZTEAK (txanda bakarra) | | | | | |
|-----------------------------------|-------|---|---|---|---|
| MAILA | ADINA | ARETO TXIRRINDA | URBAN DANCE | KROS FIT | PADELA |
| LH5 | 10-11 | 11:30-12:30 astelehena asteazkena ostirala | 10:30-11:30 astelehena asteazkena ostirala | 11:30-12:30 astelehena asteazkena | 11:00-12:00 astelehena asteazkena |
| LH6 | 11-12 | | | | |
| DBH1 | 12-13 | | | | |
| DBH2 | 13-14 | | | | |
| DBH3 | 14-15 | | | | |
| DBH4 | 15-16 | | | | |
| DBHO | 16-18 | LEKUA | | | |
| AGORROSINEN | | | | | |

Bi txandatako eskaintza: haurrei zuzendutakoa, igeriketa eta irristaketa jorratzen direlarik.

| HAURRAK | | | |
|---------|-------|---|--|
| MAILA | ADINA | IGERIKETA | IRRISTAKETA |
| HH | 3-6 | 16:00-16:45 zapaburu dordoka amurrain 16:45-17:30 zapaburu dordoka amurrain 17:30-18:15 bale marrazo 1go. eta 2. txanda | 11:00-12:00 Asteleheneretik ostiralera 1go. txandan bakarrik |
| LH1 | 6-7 | | |
| LH2 | 7-8 | | 11:00-12:00 Asteleheneretik ostiralera 2. txandan bakarrik |
| LH3 | 8-9 | | |
| LH4 | 9-10 | LEKUA | |
| | | Agorrosinen | Udal pilotalekuan |

Begiraleak: Bi motatako begiraleak daude, alde batetik kirol elkarteek eskaintzen dituztenak, eta bestetik enpresa baten bidez kontratatutakoak. Ez da eskakizun berezirik egiten monitoreak aukeratzeko orduan. Kirol elkarte edo enpresen gain uzten da monitore egokia aurkitzea.

Instalazioak: erabiltzen diren instalazioak Bergarako Udal Kirol instalazioak dira. Gehien erabiltzen diren instalazioak hauek dira: Labegaraieta kiroldegia, udal pilotalekua eta Agorrosin ekintza gunea.

*Finantzaketa: **Ikastaroak autofinantzatu egiten dira.** Erabiltzaileen kuotarekin monitorearen kostua finantzatzen da.*

Kudeaketa: Ez dago kirol elkarteekin inolako hitzarmenik sinatuta. Uda aurretik haien nahi edo gogoez galdetzen zaie uda kanpainan eskaintza egiteko. Begirale/ ikasle ratioa eskaintako ikastaroaren arabera da. Ratio hau instalazioak eta erabili beharreko materialak mugatuko dute.

- **Igeriketa sustapen kanpaina:** Bergarako Ikastetxeetako lehen hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailan dauden ikasle guztiek parte hartzen dute. Baita Elgeta eta Antzuolako ikasleek ere. Ikasle bakoitzak 20 eguneko programa jarraitzen du eta bakoitzaren gaitasunaren arabera maila ezberdineko abileziak lortu daitezke. Programa eskola orduan ematen da eta derrigorrezkoa da.

Begiraleak: begiraleak enpresa baten bidez kontratatutakoak dira.

Instalazioak: Agorrosin ekintza gunean kokatuta dagoen igerilekua erabiltzen da.

Finantzaketa: Bergarako Udalak ordaintzen du osotasunean Bergarako ikastetxeetako haurren programa.

Kudeaketa: Begirale/ikasle ratioa ez dago ongi zehaztuta. 10-15 ikasle egoten dira monitore bakoitzarekin. Ratio hauek ez datoz bat arratsaldetan egoten den igeriketa eskolako ratioekin.

Koordinazioa: koordinazioa Udal kirol zerbitzuak burutzen du. Eginbeharrekoak honakoak dira: eskolen arteko koordinazioa egin, egutegiak egin, monitoreekin koordinatu, instalazioak kudeatu, etab

| MAILA | SEXUA | LORTUTAKO MAILA | | | | | |
|------------------------|--------------------|-----------------|---------|-----------|--------|---------|--------|
| | | ZAPABURU | DORODKA | AMUARRAIN | BALEA | MARRAZO | IZURDE |
| 1. MAILA (153 haur) | NESKAK %49,02 | 10.55% | 30.55% | 46.55% | 10.55% | 2.55% | 0.00% |
| | MUTILAK % 50,98 | 26.92% | 48.72% | 16.66% | 6.42% | 1.28% | 0.00% |
| 2. MAILA (139haur) | NESKAK % 34.17 | 1.66% | 26.67% | 25.00% | 18.33% | 21.67% | 6.67% |
| | MUTILAK % 56.83 | 5.06% | 24.05% | 27.85% | 24.05% | 17.72% | 1.27% |
| 3. MAILA (145 haur) | NESKAK % 53.10 | 1.29% | 7.79% | 18.18% | 25.98% | 25.98% | 20.78% |
| | MUTILAK % 46.89 | 1.47% | 17.65% | 27.94% | 36.76% | 8.82% | 5.88% |


- **Mendizaletasuna:** Urritik Maiatza bitartean, hainbat asteburuetan mendi irteerak antolatzen dira Bergarako Ikastetxeetako haur eta gazteei zuzenduta. LH eta DBH mailako ikasleek irteera bereiztuak egiten dituzte. Urte amaieran aste buruko irteera egiten da. Hiru ikastetxeek parte hartzen dute programan, **Pol Pol mendi talderarekin** batera.

| LH-KO IRTEERAK | | | | DBH-KO IRTEERAK | | | |
|----------------|--|-----|-----------------|-----------------|---------------------|-----|------------|
| EGUNA | IRTEERA | BUS | ARDURADUNA | EGUNA | IRTEERA | BUS | ARDURADUNA |
| URRIAK 23 | FINALISTA EGUNA- ZEGAMA | BAI | DENAK | URRIAK 23 | IRIMO | BAI | |
| AZAROAK 20 | ESPELEOLOGIA- ITURMENDIKO JENTIL ZULOA (Hernani) 5.24€/ ikasleak | BAI | DENAK | AZAROAK 20 | ESPEREOLOGIA | BAI | |
| ABENDUA 18 | BERGARA INGURUKO MENDIAK | EZ | M. LAGUNDIA | ABENDUA 18 | IRUTONTORRETA | BAI | |
| URTARRILA 22 | BERGARA INGURUKO MENDIAK | EZ | ARANZADI | URTARRILA 22 | ORKATZATEGI | BAI | |
| OTSAILAK 5 | BERGARA INGURUKO MENDIAK | EZ | S. MARTIN | OTSAILAK 5 | KALAMUA | BAI | |
| OTSAILAK 19 | AIAKO HARRIAK NATUR PARKETA | BAI | DENAK / GUIA | OTSAILAK 19 | KURUTZBERRI | BAI | |
| MARTXOAK 12 | IBILIALDI NAURTUA- BERGARA | EZ | DENAK | MARTXOAK 12 | UDALAITZ | BAI | |
| MARTXOA | TXIRRINDULARI LASTERKETA- GORLA | EZ | POL-POL | APIRILAK 1-2 | ATERPETXERA IRTEERA | BAI | |
| APIRILAK 2 | UZTURRE- TOLOSA | BAI | POL-POL (PELLO) | | | | |
| MAIATZAK 6-7 | ATERPETXERA IRTEERA | BAI | DENAK | | | | |

- **Jardun Udalekuak:** Udan, 2 urte eta 12 urte bitarteko haurrentzako udalekuak antolatzen ditu Jardun elkarteak. Ez dira kirol udalekuak baina Uda kanpainari eta kirol eskeintzari kalte egin ahal dioten heinean kontuan hartzekoa da.
- **Ikastetxeek antolatutako udalekuak:** Ikastetxeek ere udaleku eskaintza egiten dute, euskeraz zein ingelesez. Hauek ere ez dira kirol udalekuak baina kirol eskaintzarentzat mehatxu hartu daiteke.

Partaidetza datuak

| BERGARA DENERA | 2006/07 | 2007/08 | 2008/09 | 2009/10 | 2010/11 | 2011/12 | 2013/14 | 2014/15 | 2016/17 |
|-----------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| AURREBENJAMINAK | 94 | 115 | 132 | 100 | 123 | 123 | 114 | 127 | 152 |
| BENJAMINAK | 102 | 133 | 129 | 137 | 142 | 142 | 155 | 118 | 154 |
| ALEBINAK | 118 | 142 | 112 | 112 | 99 | 99 | 148 | 119 | 115 |
| GUZTIRA | 314 | 390 | 373 | 349 | 364 | 378 | 417 | 364 | 423 |



| S. MARTIN | 2006/07 | 2007/08 | 2008/09 | 2009/10 | 2010/11 | 2011/12 | 2013/14 | 2014/15 | 2016/17 |
|------------------|-----------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| AURREBENJAMINAK | 34 | 30 | 45 | 41 | 45 | 30 | 40 | 36 | 51 |
| BENJAMINAK | 21 | 38 | 52 | 52 | 46 | 57 | 42 | 37 | 54 |
| ALEBINAK | 25 | 26 | 32 | 47 | 29 | 36 | 55 | 37 | 30 |
| GUZTIRA | 80 | 94 | 129 | 140 | 120 | 123 | 137 | 110 | 137 |

| LAGUNDIA | 2006/07 | 2007/08 | 2008/09 | 2009/10 | 2010/11 | 2011/12 | 2013/14 | 2014/15 | 2016/17 |
|-----------------|-----------|------------|-----------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|
| AURREBENJAMINAK | 27 | 44 | 48 | 37 | 50 | 54 | 28 | 47 | 44 |
| BENJAMINAK | 23 | 28 | 27 | 42 | 41 | 47 | 58 | 35 | 55 |
| ALEBINAK | 22 | 37 | 24 | 15 | 33 | 40 | 49 | 41 | 40 |
| GUZTIRA | 72 | 109 | 99 | 94 | 124 | 141 | 135 | 123 | 139 |

| ARANZADI | 2006/07 | 2007/08 | 2008/09 | 2009/10 | 2010/11 | 2011/12 | 2013/14 | 2014/15 | 2016/17 |
|-----------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| AURREBENJAMINAK | 33 | 41 | 39 | 22 | 28 | 39 | 46 | 44 | 57 |
| BENJAMINAK | 58 | 67 | 50 | 43 | 55 | 41 | 55 | 46 | 45 |
| ALEBINAK | 71 | 79 | 56 | 50 | 37 | 34 | 44 | 41 | 45 |
| GUZTIRA | 162 | 187 | 145 | 115 | 120 | 114 | 145 | 131 | 147 |



PARTAIDETZA OROKORRA IKASTETXE
GUZTIETAN GORA 2015 TA GERO.

BI IKASTETXETAN ALEBINEN
PARTEHARTZEA BEHERUNTZ.




| ESKOLA KIROLA NESKAK | 15/16 | 16/17 |
|----------------------|-----------|------------|
| AURREBENJAMINAK | 25 | 38 |
| BENJAMINAK | 16 | 39 |
| ALEBINAK | 34 | 32 |
| GUZTIRA | 75 | 109 |

NESKEN PARTAIDETZAN GORAKADA HANDIA, ALEBINETAN EZIK, 2015 ETA GERO.



NESKEN PARTAIDETZA OSO BAXUA, MUTILEN %30.


ALEBINETAN EZ DA BEHERAKADA NABARMENIK GERTATZEN.



| ESKOLA KIROLA MUTILAK | 15/16 | 16/17 |
|-----------------------|------------|------------|
| AURREBENJAMINAK | 111 | 114 |
| BENJAMINAK | 108 | 115 |
| ALEBINAK | 85 | 85 |
| GUZTIRA | 304 | 314 |

MUTILEN PARTAIDETZA PATROIA KONSTANTE MANTENTZEN DA.

ALEBINETAN BEHERAKADA NABARMENA DA. ERRENDIMENDUAREN ERAGINA IZAN DAITEKE.



Ondorioak eta erronkak – Eskola Kirola

4. Abonua genero ikuspegiko azterketak urteroko dinamika parekidea errepikatzen du.
5. Tarifa sozialak betiko dinamika izan du, abonuen %1aren inguruan jarraitzen du.
6. Erroldaren inguruan ere errepikatu egiten da joera.

Ikastaroak


2016ko datuen arabera, 21 jarduera desberdin eskaintzen dira eta 66 talde osatu dira jarduera hoietan. 1369 plaza eskaintza egin zen eta horietatik 1092 bete dira, hots, era efektiboan eskaintzen diren plazzen %79,77.

Jarduera arrakastatsu eta jendetsuenak, igeriketa eskola (%29) eta areto txirringa (%22) dira. Gainontzeko jarduera eskaintzak, Yoga eta Pilatesek ezik, partaidetza osoaren %5etik beherako ikasleak dituzte.



Partaidetza nahiko egonkor mantentzen da urtetik urtera, 1000 pertsonatik gora hasten dute ikasturtea ikastaroren batean.

Partaidetza datuak sexuaren arabera aztertuz gero, emakumezkoak gizonezkoak baino portzentai altuagoan parte hartzen dute kirol ikastaroetan, nahiz eta abonatu kopurua parekatua izan sexuen arabera.




Emakumeen partaidetza esanguratsua da. Partaidetza osoaren %70 inguru emakumeei dagokie.

Sarrerak Agorrosinen

2016ko toren erabilera datuak aztertuta, Agorrosingo kirol esparru erabilienak honakoak izango lirateke:


1. Hezea. Sarreren %43a eremu hezeari dagozkie.
2. Lehorra. Sarreren %31a eremu lehorrari dagozkie.
3. Bainuetxekoa. Sarreren %26a SPArri dagozkie.

2016eko sarrerak, torno motaren arabera



Urteko sarrera datuak aztertzen badira, urtetik urtera datua nahiko egonkor mantentzen dela ikus daiteke, urtean 300.000 sarreraren bueltan.

Urteko samera guztiak urtez urte.



Udal kiroldegiko eskaintzaz gain, kirol elkarteek partaidetza arloko aktibitatea eskaintzen dute. Hala nola, Pol-Pol (mendia), Hanka trail (mendi lasterketa) edo Lokatza (zikloturismoa), besteak beste, partaidetza ibilbideko kirol aktibitateak dira, nahiz eta lizentzia federatua eskatzen duten aktibitateak izan. Hortaz, udal kirol politikan tratamendu hori eman behar zaie, eta herritarrek bere esku duten kirol aukera izanik haiei informazioa iritsi arazi behar zaie. Hots, udal baliabideak aprobetxatu kirol aktibitate haiek ezagutzera emateko eta errendimendutik at dauden kirol aukerak direla zabaltzeko herritarren artean.



Aurreko planean jada aipatzen zen 60 urtetik gorako biztanleriari bideratutako programa espezifikoak landu beharko direla, adin tarte horretan dagoen aktibitate tasa handitzeko helburuarekin. Nahiz eta programa batzuk abian jarri diren, hala nola Kirol Enbaxadore programa edo Kirol Aholkularitza zerbitzua, helburu hori betetzeke dago eta planean barneratu beharreko lan ildo da. Kirol sailarekin batera beste sail batzuk ere inplikatu beharko lirarteke ekimen honetan, neurri honek sortutako inpaktua kirolek harago baitago.



Ondorioak eta erronkak – Partaidetza kirola

1. Udal kirol eskaintza zabala dute herritarrek kirola egiteko, bai instalakuntza aldetik (hurrengo atalean aztertzen da kirol instalakuntzen egoera) zein kirol jarduera aldetik. Abonu arrunta kopurua azken 5 urteetan goraka dator, %25eko hazkundera izan du hain zuzen ere.
2. Begarako partaidetza kirola, batik bat, Udal Kirol instalakuntzetan ematen den kirol jarduera programan oinarritua dago. Honetaz gain, klubek ere partaidetza kirola sustatzeko gaitasuna dute, nahiz eta haien kirol eskaintza nagusia errendimendura bideratua dagoen. Kiroldegian egiten diren jardueren ezaugarri ezberdinak dituztela kontuan hartuta –aire librean, naturarekin kontaktuan...-, partaidetza eskaintza zabaltzeko aukera ematen dute. Jada, partaidetza eskaintza dutenak mendia (bai oinez edo korrika) eta txirrindularitza (zikloturismoa) dira, baina aukera hori eskaini dezaketen beste kirol aktibitateak ere badaude, eskalada edo irristaketa, esate baterako. Aipatutakoez gain, partaidetza kiroleko aktibitateak ematen diren beste gune batzuk identifikatu dira Bergaran. Hala nola, San Juan jubilatutako elkartea eta Giartzu zentroa.
3. Partaidetza kirola adin guztiko pertsoneri bideratu daitekeen kirol eskaintza da. Gazte, heldu edo adin jakin batetik gorakoentzat ere kirola errendimendua ez den beste helburuekin praktikatzeko aukera ematen duen kirol eskaintza da. Hortaz, 60 urtetik gorako herritarren aktibitate maila igotzeko estrategia bereziak diseinatu behar dira, herrian eskura dauden baliabide guztiak kontuan hartuta: Kirol instalakuntzak, kirol elkarteak, inguru naturala eta urbanoa -urbanismo aktiboari lotutako programak-, beste herri eragile batzuk – ambulategia, HEZI-, etab.

4.4 Kirol ekipamenduak

Bergarako Kirol ekipamendu sareak herritarrei aukera zabalak eskeintzen dizkie kirol aktibitateak burutu ahal izateko. Plan honetan, nahiz eta udalak dituen ekipamendu guztiak kontuan hartu diren, kirol jarduera maila handiena duten ekipamenduei erreparatu diegu bereziki.



Bestalde, kirol politikak sustatzeko garaian, ohiko ekipamenduez gain –kirodegia, futbol zelaia, frontoiak, etab.-, ez ohiko diren beste ekipamendu bereziak ere kontuan hartu beharko dira, bai eremu urbanoan zein eremu naturalean aurkitu ditzakegunak. Hala nola: bidegorriak, mendi bideak, ibaia, plazak, etab.

| INSTALAKUNTZA | ezaugarriak |
|--|---|
| UDAL FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| ARANZADI IKASTOLA | Ohiko-guneak eta ez araudituak, Pistak eta kirol pabiloiak |
| TORREKUA FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| ESPALOIKO FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA | Aretoak, Beste ohiko-guneak, Beste osagarri-guneak, Ohiko-guneak eta ez araudituak, Pistak eta kirol pabiloiak |
| LABEGARAIETA KIROLDEGIA | Beste gune singularrak, Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak, Pistak eta kirol pabiloiak, Rokrodomoa, Tenis pistak, Uretako jarduera guneak |
| AGORROSIN KIROL GUNEA | Aretoak, Beste osagarri-guneak, Igerilekuak |
| SAN PRUDENTZIO FRONTOIA | Pilotalekuak |
| GERRIKO BERDEAREN IBILBIDEA | Lurreko jarduera guneak |
| AGORROSIN KIROLETAKO ESTADIOA | Atletismo pistak, Beste osagarri-guneak, Futbol zelaia, Ohiko-guneak eta ez araudituak |
| IPINTZA FUTBOL ZELAIA | Beste osagarri-guneak, Futbol zelaia |
| BOLU FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| ELOSUA FRONTOIA | Pilotalekuak |
| BASALGO FRONTOIA | Pilotalekuak |
| ELIZPEA FRONTOIA | Ohiko-guneak eta ez araudituak |
| ARBIASKA FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| PR-GI 94 TUMULUEN XENDA | Lurreko jarduera guneak |
| UBERA FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| SAN MARTZIAL BOLATOKIA | Jolas herrikoiak eta tradizionalak |
| OSINTXU FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| OSINTXU PROBALEKUA | Beste gune singularrak, Jolas herrikoiak eta tradizionalak |
| BIDEGORRI | Bizikleta bideak |
| DEBAKO BIDEGORRIA | Bizikleta bideak |
| MABER GIMNASILEKUA | |
| ZABALOTEGI FRONTOIA | Beste osagarri-guneak, Pilotalekuak |
| GIARTZU GIMNASILEKUA | Aretoak, Beste osagarri-guneak |
| SAN MARTIN AGIRRE ESKOLA | Ohiko-guneak eta ez araudituak, Pistak eta kirol pabiloiak |
| SAN MARTIN AGIRRE ESKOLA (IKASTOLAKO ERAIKINA) | Aretoak, Beste osagarri-guneak, Pistak eta kirol pabiloiak |
| IPINTZA BHI | Aretoak, Beste osagarri-guneak, Pistak eta kirol pabiloiak |
| PARKE OSASUNGARRIA | Beste gune singularrak |
| JUBILATUEN EGOITZAKO BOLATOKIA | Beste osagarri-guneak, Jolas herrikoiak eta tradizionalak |

Bai eskola kirolarekin izandako bileretan zein kirol federatuaren inguruan egindako partaidetza saioan kirol ekipamendu behar konkretuak agertu dira. Aurretik ere, Udal Kirol Sailak instalazioen arloan duen plangintzaren berri izan dugu; **Labegaraieta kiroldegiaren berritze proiektuak**, esate baterako, partaidetza saioan agertutako gabeziei aurre egiteko aukera eskeiniko du. Alegia, elkarteek, eta eskola kirolak, estalitako kirol kantxa ordu erabilgarri gehiago izango baitituzte entrenamendu zein lehiaketa saioak burutzeko.



Kirol ekipamendu beharrak

Azterketa fasean, kirol eragile ezberdinengandik jaso ditugun behar nagusiak, kirol ekipamendu arloan, hauek dira:

- **Eskola kirola** saioak ikastetxeen instalakuntzetan burutzen dira. Hauetako batzuk, eskola kirola arduradunaren aburuz, egoera txarrean daude. Nahiz eta taldeetako ratioak jeitsi dituzten, estalitako espazio edo instalazio gehiagoren beharra dago. Instalazio gabeziak eskola kirola eskaintza talde gehiagotan banatzea eragozten du. Hots, eskaintza sexuaren arabera banatzea edo lehiaketa formatu eta topaketa formatuan arituko diren haurren saioak bereiztea.
- **Labegaraieta kiroldegian** beste estalitako kantxa bat behar da. Dagoen estalitako kantxa bakarrak ezin ditu kirol elkarte ezberdinen beharrak asetu. Kantxa erabiltzen duten taldeak: saskibaloia, eskubaloia, gimnasia eta irristaketa.
- **Skate park:** ekipamendua egora txarrean dagoela diote erabiltzaileek. Guztiz berritu beharra dagoela eskatzen dute.
- **Agorrosin futbol zelaia:** BKE futbol taldeko arduradunek egun herriko futbol aktibitateari erantzuna emateko futbol zelai ordu nahikorik ez dagoela diote. Agorrosineko futbol zelaia belar naturaleko zelaia da. Honek erabilera erabat baldintzatzen du. Soilik mutilen lehen taldeko partidak jokatzen dira bertan, hamabostean behin. Hortaz, klubeko futbol aktibitate guztia lpintza zelai artifizialeko instalazioan egiten da. Alegia, klubeko 14 taldeen saioak eta futbol eskola saioak bertan egiten dira. **Saturazio maila altua agertzen du lpintzako**

futbol zelaiak, eta saturazio maila honek talde gehiago sortzea eragozten du. Kasu honetan, kaltetuenak emakumezkoak izanik, eskariaren hazkundeari erantzuteko ahalmenik ez bait dago. Zalantzarik gabe, kirol federatuko atalean aipatu lez, helburu estrategikotzat jo daiteke emakumeei zuzendutako futbol eskeintza zabaltzea. Hortaz, Agorrosin futbol zelai naturala artifizialean bihurtzea eskatzen dute BKE arduradunek. **Zelai naturala artifizialean bihurtuz egungo futbol instalazio eskaintza bikoiztuko litzateke, Bergarak duen futbol eskariari erantzun egokia emanez.**

Astelehenetik ostiralera egunero 17:00 tik 21:30 arte Ipintzako futbol zelaia BKEko taldeek erabiltzen dute.



Agorrosin futbol zelaia apenas erabilerarik ez duen kirol azalera handiko lur eremua da. Zelai naturala izateak eta argiztapen artifiziala ezak zeharo baldintzatzen dute futbol zelaiaren erabilera; soilik errejional mailako partidak jokatzeko erabiltzen den kirol eremua da. BKEko futbol talde guztiek Ipintzako zelaian entrenatzen dute, honen saturazio maila erabatekoa izanik. Egungo taldeek entrenatzeko futbol zelai erabilera ordu gutxi dituzte, eta talde gehiago sortzeko aukera erabat murriztua dago espazio faltagatik. Emakumezkoen talde gehiago sortzeko eskaria dago Bergaran baina gaur egun ezinezkoa da honi erantzuna ematea baldin eta beste taldeei egokitutako entrenamendu orduak murrizten ez badira.



Agorrosingo futbol zelaia, bai udal kirol plangintzaren ikuspegitik zein ikuspegi ekonomiko batetik, aukera kostu handiko kirol instalazioa bihurtu da. Herrian dauden kirol beharrei erantzunik ematen ez dion kirol eremua da. Beraz, instalazioaren etekina handitzeko Begarako Udala eta BKE –Agorrosingo jabea- irtenbide bat bilatzera behartuak daude.



Gaur egun, Agorrosingo futbol zelaia atletismoko pista batek inguratzen du. Pista honek ez ditu neurri eta baldintza ofizialak betetzen. Jatorrian hala egin zen eta halaxe jarraitzen du. Erabilera aldetik, gehienbat atletismoarekin zerikusirik ez duten jarduerak burutzen dituzte herritarrek. Bergaran ez dago atletismo talderik.

Atletismo pistak lur azalera handia hartzen du. Lur azalera hori, beste kirol erabilera batzuk burutzeko planifikatu daiteke. Agorrosinen eskuatze integral bat planteatu beharko litzateke, kirol eremuak berrantolatuz eta Begarako Kirol behar eta plangintzarekin bat eginez. Futbol zelai artifizialaz gain, atletismo pista kenduta, **beste kirol erabileretarako azalera handia berreskuratu daiteke**. Begarako Udalak, Kirol Zerbitzuak, ze kirol erabilera planteatu daitezken aztertu beharko luke. Erabilera libreko edo kirol abonamenduari lotutako erabilerako eremua izango den erabaki beharko da, beharren



arabera. Kiroldegia bertan izanda, handik kudeatu daiteken espazioa izan daiteke, kudeaketa koste gehigarrik jasan gabe.

Kirol instalazioak ez ezik, hauei zerbitzu emango dien instalazio auxilarrak ere aurrikusi beharko dira bere neurrian. Alegia, aldagelak, komunak, harmailak, biltegiak, etab. Kontuan hartu beharko da, egun dauden aldagelen egoeraz gain –era prefabrikatuan eginak-, kirol aktibitatea handitu egingo dela, zerbitzuen beharra ere handituz.

Aipatu, BKEk Real Sociedadekin batera eginiko aurreproiektu bat daukala Agorrosingo zelaia berritzeko. Bertan futbol zelaia ibaiaren eremura mugitzen da, ikastetxera ematen duen aldea beste kirol erabilera batzuntzako aurrikusten delarik.




Ondorioak eta erronkak – Kirol ekipamenduak

1. Labegaraietako kirodegiko erreforma proiektua aurrera eramatea Udalaren lehentasunen artean dago kirol ekipamendu arloari dagokionez. Gaur egun kantxa estali bakarra dago herriko kirol eskariari erantzuna emateko. Kantxaz gain, Labegaraieta kirol esparruan dauden beste instalakuntzen hobekuntzari ere erreparatu behar zaio. Horretarako erabiltzaileek dituzten beharrak eta iradokizunak bideratu dira Udalak antolatutako partaidetza saio berezian –Emon enpresaren bitartez-.
2. Eskola kirola saioak egoki burutzeko estalitako instalakuntza gehiago eta hobeak behar dira. Eskeintza sexuaren arabera bereizteko edota topaketa eta lehiaketa taldeen saioak bereizteko espazio erabilgarri gehiago behar da. Aurretik, Labegaraietako erreformak behar honi eman diezaioken erantzuna aztertu beharko litzateke.
3. Agorrosingo futbol zelaiari etekin handiagoa atera beharko litzaioke. Batetik, futbol eskariari erantzun egokiagoa eman ahal izateko: Ipintzaren saturazio maila oso altua da eta emakumezkoen futbolak duen hazkundeari erantzuna emateko ezinbestekoa da zelai ordu gehiago erabilgarri izatea. Bestetik, ikuspegi ekonomiko zein sozialetik aukera kostua altua da Agorrosin bezelako kirol eremu zabala erabilerarik gabe mantentzea. Herriarentzako kirol eremu berri bat berreskuratzeko aukera ere kontuan hartu beharreko arrazoa litzateke.
4. Ohiko ez diren kirol espazioek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatu behar dira udal kirol aktibitateak sustatzeko, bai ingurune naturala zein espazio urbanoan.

4.5 Kudaketa / Udal Kirol Zerbitzua

Bergarako Kirol Zerbitzua herriko kirol eragile nagusia da. Aurreko lau ardatzetan egiten diren ekintzen bultzatzaile nagusia da, hortaz, kirol zerbitzuaren kudeaketak eragin zuzena de Bergarako kirol sisteman.

Egitura



Agorrosingo gerentearen lanpostua birdefinizio prozesuan dago.

- Udal kirol teknikariaren eginkizun nagusiak: (lanpostu finkoa, jardunaldiaren %100)
 - Bergarako kirolaren arlo ezberdinen planifikazioa proposatu eta onartutakoa gauzatu .
 - Herriko kirol ohiko eta ez ohiko ekitaldiak koordinatu, eta kasu batzuetan antolatu.
 - Herriko kirol instalazioen erabilera koordinatu eta kudeatu.
 - Kirol zerbitzua eta Udalaren arteko harremanak bideratu.
 - Kiroletako Batzordearen idazkari lanak burutu.
 - Kirol zerbitzuko txostenak eta memoriak prestatu.
 - Kirol zerbitzua eta herriko bestelako ajenteen arteko harremanak bideratu.
 - Kirolarekin zerikusia dute erakundeekin harremanak bideratu; Debagoieneko Udalak, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.
 - Kirol zerbitzuko langileen eta azpikontrataturako enpresen gaineko ardura.
 - Eguneroko gorabeherak kudeatu; bezeroak, iradokizunak, deiak...

- Agorrosingo gerenteraen eginkizun nagusiak³: (behin behineko lanpostua, jardunaldiaren %100):
 - Agorrosingo giza eta material baliabideak modu eraginkorrean kudeatu.
 - Agorrosingo kudeaketa ekonomikoaren kontrola eta jarraipena.
 - Agorrosingo kirol plana egin eta garapena koordinatu..
 - Agorrosingo helburuak, estrategiak eta indikatzaileak proposatu..
 - Agorrosingo lan-talde ezberdinen lan jarduna antolatu, planifikatu, koordinatu eta kontrolatu..
 - Kirol eta osasun ohituren mugimendua sustatu,
 - Agorrosingo mantentze eta garbitasun parametroak bermatu.
 - Agorrosingo proiektu eta ikerketa ezberdinak egin.
 - Instalazioko udal kirol araudiko proposamena egin eta betearazi..

³ Postu hau birdefinizio prozesu batean aurkitzen da, Kirol Zerbitzuko koordinatzaile laguntzaile lanpostua sortzeko.



Eskola kirola koordinatzailearen eginkizun nagusiak (lanpostu finkoa, jardunaldiaren %65ean)

- Eskola kirolaren diseinua gauzatu.
- Ikasturteko kirol programazioa egin.
- Eskola kirola lehiaketak antolatu eta kirol desberdinetan sustatzeko jarduerak antolatu.
- Eskola kirol kontseiluaren bileren deialdiak egin eta idazkari lanak bete.
- Diputazioarekiko harremanak.
- Igeriketa hastapen kanpaina antolatu.
- Mendiko irteeren antolaketan lagundu.

Kirol zerbitzuko administrari kontablearen eginkizun nagusiak (lanpostu finkoa, jardunaldiaren %50ean)

- BIHARGINTZAko fakturazioaren jarraipen eta kontrola.
- UKZko fakturazioaren jarraipen eta kontrola.
- UKZko sarreraren jarraipen eta kontrola.
- Urteko ekitaldiaren balantze eta zuritzea.
- Kirol teknikariaren idazkari lanak.

Agorrosingo administrariaren eginkizun nagusiak: (behin behineko lanpostuak, 4 langile jardun osoan)

- Jende aurreko arreta eta informazio hedapen lanak egitea.
- Sarrera kontrola.
- Dokumentuen eta espedienteen tramitazio, gestio etab..
- Goi mailako taldeari ez dagokion dokumentuen prestaketa egitea.
- Datuen elaborazioa eta administrazioa eramatea.
- Kalkulu numerikoak eta eskuzkoak edo lan ofimatikoak egitea.

Agorrosingo eta kirol zerbitzuko mantenimendu arduradunen lan nagusiak (lanpostu finkoak, 2 langile jardunaldiaren %100)

- Agorrosingo kirol gunearen mantenu prebentiboa eta zuzentzailea.

- Labegaraieta kiroldegiaren mantenu prebentiboa eta zuzentzailea
- Udal pilotalekuko mantenu prebentiboa eta zuzentzailea
- Bestelako hainbat kirol instalazioen mantenu zuzentzailea.
- Kirol instalazioen kontsumoen kontrola.
- Kirol instalazioen funtzionamendua hobetzeko proposamenak egitea.
- Kirol zerbitzuan dugun kirol ekitaldietarako materialaren zainketa eta kontrola.

Agorrosingo garbitzailen eginkizuna (6 langile jardunaldiaren %70an)

- Agorrosingo instalazioaren garbiketa

Aurreko plana burutu zenean, **Kirol Zerbitzuak bere Xedea, Ikuspegia eta Baloreak** identifikatu zituen; indarrean jarraitzen dute.

- **Xedea**

Gure herritarren bizitza kalitatea hobetzea ahalbidetuko duen kirol ekipamenduen, kirol jarduera eta jarduera fisikoen eskaintza egitea Bergarako eta inguruko herrietako biztanleriarentzat.

- **Ikuspegia**

Begara, nahi duen orok erregulartasunez jarduera fisikoa egiten duen herri aktiboa izatea eta kirol ekipamendu eta jardueren gure biztanleriaren beharrak asetzea.

- **Baloreak**

- Pertsonak gara garrantzitsuena; herritarrak, erabiltzaileak, langileak, politikariak, etab.
- Bergarako kirol proiektua proiektu bizia eta aldakorra (modificable) izan behar da, eta ekarpenak egin nahi dituzten herritarren eta kirol arloarekin lotura duten eta ez duten erakundeekin harremanean oinarrituta egon behar da.

- Kanpora begiratu behar dugu besteek egiten dutenaz ikasteko eta gure jardueran eragina duen ingurune edota talde bateko partaide garena kontziente izateko.
- Gaitasuna, jatorria, sinismena, sexua,... zeinahi ere den, guztiek dute eskubidea ariketa fisikoa egiteko eta gure egitekoa berau bermatzea da.
- Gure eguneroko jarduerak ingurugiroa errespetatu dezan saiatu behar gara, kontsumoa ahalik eta gehien arrazionalizatuz eta isurketak minimizatuz.
- Finantza-oreka bat bilatu behar dugu gure proiektua denboran iraunkorra izan dadin.

Planaren idazte prozesuan Bergarako kirol sistemari buruz hainbat kirol eragilerekin hitzegiteko aukera izan dugu. Hausnarketa bide horretan Udal Kirol Zerbitzuari buruz kirol eragileek duten iritzia jasotzeko aukera ere izan dugu. Gure ustez, Udal Kirol Zerbitzuak egindako lana hobetzeko balio dezaketen hainbat ekimen jasotzen dira atal honetan. Hauek ez ezik, baita ere Kirol Zerbitzuak egindako hausnarketaren ondorioz sortutako ekimenak.

Kiroldegiaren kudeaketari -kirol instalakuntzen ustiapen ekonomikoari- dagozkionak ez dira plan honetan jasotzen. Ustiapen ekonomikoaren ondorioz jasaten den diru galeraren jatorria ezagutzeko kirol eskaintza publikoaren koste azterketa egin behako litzateke.

Ondorioak eta erronkak – Kudeaketa / Kirol Zerbitzua

1. Giza baliabideak: Udal Kirol Zerbitzua osatzen duen lan taldearen profila eta beharrak ongi definitu behar dira. Kiroldagiko kudeaketaren ardura zuen langileak Kirol Zerbitzua utzi du eta hutsunea egoki betetzeko momentua litzateke.
2. Kirol politika egiteko Udalak bere esku tresna eraginkorra du: diru laguntza oinarriak. Egun indarrean dauden oinarriak aztertu eta udal kirol politikarekin bat egiteko beharrezkoak diren aldaketak barneratu behar dira. Adibidez, klubei emandako diru laguntza oinarrietan ekitaldi bereziekin dituzten baldintzak aldatzeko beharra ikusi da.
3. Udal Kirol Zerbitzua eta herriko kirol eragileen arteko koordinazioa eta harremana hobetu. Kirol elkarteek, batik bat, udalarekin kontaktu gehiago beharrezkotzat jotzen dute. Elkartei eragiten dien hainbat ekimen antolatu baino lehen hauen iritzia jasotzeko mesede egingo liokela uste dute. Adibidez: kirola kalera ekimenaren antolaketa, edo kirol instalazioetan interbentzioak planteatzeko garaian.

5. Kirol arloko helburu eta estrategia nagusiak 2018-2021

Arlo bakoitzeko HELBURUAK eta garatu beharreko ESTRATEGIAK.

Definitu diren arlo bakoitzeko helburu eta estrategietan sakondu aurretik, aipatu hauen gainetik eta hauen garapena baldintzatzen duen ARDATZ EDO ESTRATEGIA NAGUSI bat identifikatu dela, alegia, HERRI ETA HERRITAR AKTIBOAK lortzearena. Aurreko plan estrategikoaren oinarriari eutsiz, oraingo plan berri hau ere herritarren aktibitate fisiko maila igotzen lagundu behar duen tresna da, biztanleriaren segmentu ezberdinetan estrategia bereziak abian jarritz. Horretarako, eta planaren arrakasta bermatze bidean, ezinbestekoa da estrategia hauek garatzeko Udalaren arlo ezberdinen partehartzea eta konpromezua lortzea.

1 ESKOLA KIROLA

1.1 Bergarako nesken partaidetza maila handitu Eskola Kirolean.

- 1.1.1 **Eskola Kiroleko eskaintza sexuaren arabera bereiztu maila guztietan:** eskaintza mistoa nesken partehartzea baldintzatzen duen faktorea izanik, nesken eskaintza berezia antolatu, horretarako baliabideak egokituz.
- 1.1.2 **Topaketa eta lehiaketa formatu bereiztua mantendu:** balorazio positiboa egin da lehiaketaz gain hurrek topaketa formatoa aukeran izatea. Hori bai, entrenamendu saioak ere bereiztuak antolatu beharko lirateke (ikusi 1.2.1 eta 1.2.2)

1.2 Eskola Kirola eskaintzaren kalitatea handitu.

- 1.2.1 **Estalitako instalazio gehiago ahalbidetu:** Labegaraietan planteatutako proiektuaz gain, ikastetxeetan egon daitezken hobekuntza aukerak ere aztertu **eskuduntza duten erakundeekin batera.**
- 1.2.2 **Begirale gehiago talde ezberdinen beharrak asetzeko:** bai topaketa formatuak zein nesken kirol eskaintzak begirale gehiagoren beharra eskatzen dute.

1.3 Egungo kirol aukera zabaldu Eskola Kirolean.

- 1.3.1 **Kirol egokituaren eskaintza ziurtatu** ikasle guztiek kirola egiteko aukera izan dezaten. Dordoka Elkartea, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Udalaren artean lankidetzaren hitzarmena sinatu proiektu zabal bat garatu ahal izateko, eskola kirolean oinarri beste arloetara ere zabaldu daitekena.
- 1.3.2 **Kirol gehiagoren presentzia:** Elkarrekin batera, Bergaran dauden kirol aukera ezberdinak haurrei eskuragarri jarri probatzeko aukera izan dezaten. Ikastetxeekin eta koordinatzailearekin urteko programazioa aztertu.
- 1.3.3 **Kirolari erreferenteak erabili ikastetxeekin saio bereziak egiteko:** modalitate ezberdineko kirolariak (neskak eta mutilak) ikastetxeetara eraman kirol ezberdinak ezagutarazteko. Herrian edo eskualdean presentzia duten kirolak.

2 KIROL FEDERATUA

2.1. Kirol elkartegintza sendo eta aktiboa mantendu Bergaran.

- 2.1.1. **Udalaren eta kirol elkarteen arteko komunikazioa eta lankidetzaren sendotzea:** helburu bateratuak izanik, udala eta elkarteen arteko elkarlanari etekin handiagoa atera behar zaio.
- 2.1.2. **Kirol elkarteek betebeharreko tramite administratiboak erraztu udaletik:** elkarteek dituzten hainbat betebeharrak burutzeko egitura profesional amankomun bat sortzea aztertu beharreko aukera da.
- 2.1.3. **Kirol elkarteen arteko sinergiak aprobetxatu eta amankomunean lan egin:** aurrekoaren arira, elkarteek beraien arteko sinergiak landu behar dituzte etekinak lortzeko: kudeaketa mailan, antolakuntza mailan, kirol eskaintza bateratuak landu, etab.

2.2. Kirol eskaintza federatuaren berrantolaketa.

- 2.2.1. **Emakumezko seniorrak:** Emakumezkoen taldekako kirolean senior mailako eskaintza bideratu, gazteei jarraipen aukera emateko.
- 2.2.2. **Gazte mailako eskaintza:** Banakako kirolean eskaintza berezia landu, batik bat, nesken interesa piztuzeko (1.3 helburuarekin lotura).
- 2.2.3. **Udalarekin batera herriko kirol eskaintza federatuari difusioa eman:** Udalak dituen baliabideak aprobetxatu kirol eskaintza ezagutzera emateko (2.1.1 lotura).

2.3. Kirol ekitaldiak herrian. Kirola non nahi eta noiz nahi.

- 2.3.1. **Koordinazioa eta eraginkortasuna:** Udala eta elkarteen helburuak bateratu urteko kirol ekitaldi programazioa egiteko unean (2.1.1 lotura)
- 2.3.2. **Babesa:** Diru laguntzaz gain, udaletik harreta logistikoa eta aholkularitza administratiboa antolatzaileei.

3 PARTAIDETZA KIROLA

3.1. Kalitatezko Udal kirol eskaintza mantendu Bergaran.

- 3.1.1. **Oinarrizko kirol jarduerak identifikatu eta indartu:** adin segmentu bakoitzeko oinarrizko kirol jarduerak herritarrentzat eskuragarri daudela bermatu. Oinarrizko aktibitate hauek eskuragarri herritar guztientzat, bereziki maila ekonomiko edo jatorri ezberdineko herritarren partehartze aukera bermatuz.
- 3.1.2. **Oreka ekonomikoa eta kirol eskaintza jasangarria:** abonamendu kopuruaren tendentzia mantendu udal kirol eskaintzaren autofinantzaketa maila handitzeko.

3.2. Partaidetza helburuak dituen kirol eskaintza zabaldu (kiroldegitik at).

- 3.2.1. **Elkartek bideratutako eskaintza:** Bergarako kirol elkarteek partaidetza helburuekin egiten dituzten aktibitateak sustatu herritarren artean. Hala nola, mendia, txirrindularitza, irristaketa, eskalada...Sexu bien eta adin eta ezaugarri ezberdinetako biztanleentzat haien behar, nahi eta gaitasunetara egokitutako kirol eskaintza ahalik eta zabalena egiteko.
- 3.2.2. **Komunikazioa landu:** komunikazio estrategia bateratua kirol eragileen artean; eskura dauden baliabideen erabilera eraginkorra herritarrei informazioa zabaltzeko.

3.3. 60 urtetik gorako biztanleriaren aktibitate maila handitu.

- 3.3.1. **Ekimen espezifiko bat diseinatu 60 urte gorakoentzat:** haien beharrak identifikatu behar dira eskaintza programa bereziak antolatzeko. Bergaran haien beharrei erantzuna emateko baliabideak antolatu (kirol ekipamendua, ingurunea, giza baliabideak, ezagutza). Enbaxadore programari eta aholkularitza zerbitzuari gehituko zaien ekimen berriak.
- 3.3.2. **Koordinazioa beste herri eragileekin:** abian dauden programen ebaluazioa egin eta birplanteamendu berri bat egin. San Juan jubilatutako elkartearekin koordinazioa.

3.4. Inklusio arazoak izan ditzazketen herritarrak kirolera erakarri.

- 3.4.1. **Aktibitate fisikoko aholkularitza zerbitzuaren** erabilera bultzatu herritarren artean, bereziki, arrazoi ezberdinengatik, aktiboak ez diren herritarrei jarduera fisiko edota kirolera sarrera emateko aukera gisa.
- 3.4.2. **Herriko anbulategiarekin** koordinazioa sendotu aktibitate fisikoa behar duten herritarrak zerbitzu honetara bideratzeko.
- 3.4.3. **Ezintasuna duten herritarrei** zuzendutako kirol eskaintza berezia landu (1.3.1 lotura).

4 KIROL EKIPAMENDUAK

4.1. Abian dauden kirol ekipamenduen erreformak garatu.

- 4.1.1. **Labegaraieta kiroldegia:** Hurrengo urteetan kiroldegiko erreforma lanak burutuko dira eta erabiltzaileekin planifikazioa egin kirol aktibitatea eta erreforma lanak uztartzeko ahal den neurrian.
- 4.1.2. **Boluko pilotalekua:** Egun zeharo irekia dagoen pilotalekuan estalpea ipiniko da. Herritar guztientzako eremu estali berria eskeintzeaz gain, Eskola Kirola eta Pilota sailarentzako ere aukera berriak sortuko dira.
- 4.1.3. **San Martin eskola:** Patioan karpa berria. Kokapen estrategiko honetan espazio estalia sortuko da, aisialdia eta kirolerako aukera berriak sortuz.

4.2. Eskola kirolaren instalazio beharrei erantzuna eman.

- 4.2.1. **Diagnostikoa:** Ikastetxe eta koordinatzaileekin beharrak eta aurrikuspenak aztertu. Nola eragiten dion instalazio ezak eskola kirolaren partaidetzari.
- 4.2.2. **Eskuduntza duten erakundeekin** proposamenak landu. Eskura dauden ekipamenduak kontuan hartuz, identifikatutako beharrak zehaztu.

4.3. Agorrosin futbol zelaia eta kirol eremuaren etekina handitu.

- 4.3.1. **Proiektu bateratua:** BKE eta Udalaren arteko elkarlana bideratu Agorrosingo proiektua aurrera eramateko.
 - 4.3.1.1. Zelai naturala artifizialean bihurtu.
 - 4.3.1.2. Kirol eremu berriak sortu herriarentzat, udal kirol plangintzarekin bat.
 - 4.3.1.3. Beharrezko instalakuntza auxiliarra: aldagelak, komunak, harmailak.
- 4.3.2. **Finantzazio bideak:** diru iturriak lortzeko erakunde ezberdinekin kontaktuak egin.

4.4. Ohiko ez diren kirol espazioen erabilera handitu.

- 4.4.1. **Udaleko beste alorrekin elkarlana:** Urban Active ekimena garatu hirigintzarekin batera. HIRIA ESPAZIO IREKIA.
- 4.4.2. Ibilbide naturalen seinaleztapena burutu.

5 KUDEAKETA / KIROL ZERBITZUA

5.1 **Begarako herritarren bizitza kalitatea hobetzea ahalbidetuko duen kirol ekipamenduen, kirol jarduera eta jarduera fisikoen eskaintza bermatzeko kudeaketa arduratsua eta zentzuduna egitea.**


- 5.1.1 **Giza baliabideak:** Udal Kirol Zerbitzua osatzen duen lan taldearen profila eta beharrak definitu, instalazioko gerenteak utzitako lekua egoki betetzeko.
- 5.1.2 **Baliabide ekonomikoak:** instalakuntzen eta udal kirol jardueren azterketa ekonomikoa egin kudeaketa jasangarria eta autofinantziazio maila handitzeko bidean.
- 5.1.3 **Diru laguntza oinarriak:** kirol politika garatzeko tresna eraginkorra. Egun indarrean dauden diru laguntza oinarriak aztertu eta udal kirol politikarekin bategiteko beharrezkoak diren aldaketak burutu.
- 5.1.4 **Begarako Kirolaren erreferentea:** Udal Kirol Zerbitzua erreferentea izanik, beste kirol eragileekin koordinazioa eta harremana sendotu eraginkortasuna handitzeko helburuarekin.
- 5.1.5 **Zeharlerrotasuna:** Begarako Kirol Zerbitzuko kudeaketan ikuspegi anitza barnertzeko konpromezua sendotu: berdintasuna, integrazioa, euskararen erabilera, besteak beste. Udal sail ezberdinekin elkarlana bultzatu.

Bergarako Udalarentzat egindako proiektua.

Proiektuaren koordinatzailea: **Gorka Leunda Azurmendi**

Iruzkina eta iradokizunak mezu elektroniko bidez helbide honetara:
gleunda@aventoconsultoria.com

Donostia, 2017ko uztailak 24.



Fdo. : Gorka Leunda



www.aventoconsultoria.com

